

IZARA ARTEAN

Irantzu Zinkunegi Lete, 15 urte

Azkoitia

Gaueko isiltasunaren goxoan, lauak inguru,
guraso, Biki eta geroan, AHAZTU BURU!
TIK-TAK, TIK-TAK... segunduak
Irakurketan murgiltzea bezalakorik ez
begiak eta burua betetzeko nekez
hala ere ingurua sumatzen dut etsaiez:
mila galdera, arazo eta kezkez,
lorik hartzen utzi gabe gauero lez.
Dan Brown-en *Aingeru eta deabruak!*
Zergatik gertatzen zaizkit halako deskalabruak?

Marinelen itxaropena,
lur hartzearena,
urez itota gelditu da
dena.
Faroak egin die lehen
keinu eta azkena.
Orain itsasoan, norae-
zean, jira eta bira...

Aroaren itxaropena
lo hartzearena,
amets hutsean gelditu da
dena.
Argiak egin dio lehen
keinu eta azkena.
Orain ohean, noraeze-
an, jira eta bira...

Lorik hartu ezinda beste behin; iluntasun honen
argia zein?

Aitak amorrúa du amarekiko,
beste norbait delako bere tokiko
oraindik jarraitzen dut izaten bien begiko,
baina jada biak galduak sumatzen ditut betiko.

TIK-TAK, TIK-TAK, ez du keinurik egin argiak.

Jokoan dago nire ikasketen etorkizuna, nire bidea
nondik zula?

Iritsi zait zirt edo zart egiteko ordua,
baina denboran atzera egingo nuke gustura!

...zenbat oroitzapen lelo, amaren besarkada eta
muxu bero,
parkeko lagunekin hainbat jolas ero.
Zer emango nukeen nik garai haiek berriro bizi-
tzeko! ...baina, hiru, bi, bat, zero.

Oraina deritzogun segundua kontatu baino lehen
iragan bihurtua,
eta etorkizuna ate joka jada, izateko oraineko
segundua.

Iragan berreskurazina, hain triste utzi, guregan-
dik agurtua?

TIK-TAK, TIK-TAK, ordulariko orratzak.

Biki ene maitatua,
izango ote zen zure hegaldia gailentzeraino zerua?

Nire alaitasunerako zen zure txorrotxio eta mugimendua,
beste era batera ikustaraziz mundua.
Baina emeki-emeki isildu zenuen zure kantua.
Nork aurkitu zure heriotzaren zentzua?

TIK-TAK, TIK-TAK, jada bostak.

Ea oroitzapen atseginak inoiz ahazten ez diren,
eta beti *CARPE DIEM!*

Begiak KLIK-KLAK... KLAK.

Kuku egin dio argiak.